

CNMVko erregistro-zenbakia: 4449

Kudeatzailea: CAJA LABORAL GESTION, S.G.I.I.C., S.A. **Bestorearen taldea:** CAJA LABORAL GESTION, S.G.I.I.C., S.A. **Auditorea:** PRICEWATERHOUSECOOPERS S.
Gordailuzaina: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREI **Gordailuzainaren taldea:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Gordailuzainaren ratinga:** BBB+ (Fitch)
Konpartimentudun fondoa: Ez **Erregistro-data:** 2012/03/02an

Partaideek eskura dute inbertsio-zorroaren xehetasunak jasotzen dituen txosten osoa. Doan eska dezakete Jose Maria Arizmendiarieta, 5-3 20500 - Arrasate/Mondragón Guipuzcoa-(e)(a)n edo FondosdelInversion@laboralkutxa.com, helbide elektronikoa, edo CNMVren erregistroetan edo www.cnmv.es webgunean kontsulta dezakete. Bezeroek IKE-ei buruz egiten dituzten kontsultak hemen argituko ditu erakunde gestoreak:

Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta, 5-3 20500 - Arrasate/Mondragón Guipuzcoa **Telefonoa:** 943790114
Helbide elektronikoa: FondosdelInversion@laboralkutxa.com

Era berean, bezeroarentzako arreta-departamentu bat duzu, kekek eta erreklamazioak bideratzeko. CNMVk ere Inbertitzailearen Arreta Bulegoa jartzen dizu eskura, 902 149 200 telefono-zenbakian eta inversores@cnmv.es helbide elektronikoa.

1. Inbertsio-politika eta izendapen-dibisa

Kategoria

Fondo mota: Fondo que invierte mayoritariamente en otros fondos y/o sociedades.
 Inbertsio-bokazioa: GLOBALA.
 Arrisku-profila: 6 (1etik 7ra bitarteko eskala baten)

Deskribapen orokorra

Inbertsio politika: Gestioaren erreferentzia % 50 MSCI World + % 15 BofA ML 3-5 Euro Government + % 20 BofA ML Global large Cap Corporate + % 10 BofA ML Global High Yield + % 5 Eonia da. Ondarearen % 50-100 inbertituko da gestio-erakundearen taldekoak diren edo ez diren Finantza IKE-etan (aktibo egokia), harmonizatuak izan ala ez (IKE harmonizatu gabeetan, % 30 gehienez); erabateko itzulkinetara IKE-etan (merkatuaren bilakaerari lotuta ez daudenak), berriz, % 30raino inberti daiteke. Zuzenean edo zeharka, edozein kapitalizazio eta sektoretako errenta aldakorrean inbertitzen da esposizio osoaren % 0-100 artean; gainerakoa, berriz, errenta finko publiko/pribatua, barne direla diru-merkatuan kotizatzen diren edo ez diren tresnak, likidoak eta, batik bat, gordailuak, titulazioak, Espainiako finantza-erakundeetako mendeko zorra, hipotekazedulak eta Espainiako jaulkitzaileen zor-agiriak. Dibisa-arriskurako esposizioa % 0-100 artean izango da. Zuzeneko inbertsioan eta zeharkakoan, ertaina (gutxiarik) izan behar du errenta finkoko jaulkipenen kalitateak (BBB-, gutxienez), edo, hortik beherakoa bada, une bakoitzean Espainiako Erresumak daukana; behe-mailako kalitatekoa (BBB- baino txikiagoa), berriz, esposizio osoaren % 35eraino izan daiteke. Errenta finkoko zorroaren batez besteko iraupenak -2 eta 7 urte bitartekoa izan behar du. Batez ere ELGEkoak izan behar dute jaulkitzaileek eta merkatuek, eta esposizio osoaren % 35eraino inberti daiteke suspertzen ari diren herrialdeetan. Herrialde horietako errenta aldakorretan egiten den inbertsioak ez du gainditu behar % 20, ez eta % 35 ere suspertzen ari diren herrialdeetan eta/edo errendimendu handiko jaulkitzaileetan egiten denak. Aukera egongo da, % 35etik gora Europar Batasuneko estatu batean, autonomia-erkidego batean, toki-erakunde batean, Espainia kide duten nazioarteko erakundeetan eta Espainiako bako kaudimen handiagoko estatuetan inbertitzeko.

Tresna deribatuetako eragiketak

Fondoak, konpromisoaren metodologia erabiliko du finantza tresna deribatuei dagozkien merkatu arriskua neurtzeko.

Deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-tresnekin jardun ahal izango da estaldura-eta inbertsio-helburuetarako, eta deribatuen merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren finantza-tresnekin ere egin ahal izango dira eragiketak, estaldura- eta inbertsio-helburuetarako. Eragiketak egiteko modu horrek, baina, arriskuak ditu; izan ere, estaldura perfektua ez izatea gerta liteke, palanka-efektua eragiten dutelako eta konpentsazio-ganberarik ez dagoelako. Informazio-liburuxkak inbertsio-politikari buruzko informazio zehatzagoa jasotzen du.

Izendapen-dibisa

EUR

2. Datu ekonomikoak

2.1.a) Datu orokorrak (Akzioak)

Informazio eskuragarriak ez dagoenean, gelaxkak zuri ageriko dira

	Oraingo aldia	Aurreko aldia
Egungo partaidetza kopurua	3.577.038,34	3.558.225,93
Egungo partaide kopurua	522	516
Egungo partaidetzagatik banatutako mozkin gordinak (EUR)		
Gutxieneko inbertsioa (EUR)	1000	

2.1.b) Datu orokorrak (Ondarea/Likidazio-balioa)

Data	Aldiaren amaierako ondarea (Milaka EUR)	Aldiaren amaierako likidazio-balioa EUR (*)
Txostenaren aldia	28.404	7.9407
2018	25.747	7.2358
2017	23.893	7.9203
2016	20.329	7.3579

2.1.b) Datu orokorrak (Komisioak)

Aldian batez besteko ondarearen gainean kobratutako komisioak

Gestio-komisioa						Kalkulu-oinarria	Inputazio-sistema
Benetan kobratutako %-a							
Aldia		Metatua					
ondarearen gain	emaitzen gain	Gutzira	ondarearen gain	emaitzen gain	Gutzira		
0,42		0,42	0,42		0,42	Ondarea	

Gordailuzain-komisioa		
Benetan kobratutako %-a		
Aldia	Metatua	Kalkulu-oinarria
0,02	0,02	Ondarea

2.1.b) Datu orokorrak (Biriketa/Errentagarritasuna)

	Uneko aldia	Aurreko aldia	Uneko urtea	2018 urtea
Zorroaren errotazio-indizea	0,13	0,40	0,13	0,79
Likidaziaren batez besteko errentagarritasuna (% eguner:	0	0	0	0

OHARRA: Aldia hiruhilekoa edo seiuhilekoa izan daiteke, dagokionaren arabera. IKEaren likidazio-balioa egunero zehazten ez bada, azken datu erabilgarria hartuko da errentagarritasuna eta ondarea zehazteko.


3. Finantza-inbertsioak

3.1. Finantza-inbertsioak burutzapenaren balio zenbatetsian (milaka eurokotan) eta ondarearen gaineko ehunekotan, aldiaren amaieran.

Inbertsioaren eta jaulkitzailearen azalpena	Dibisa	Oraingo aldia		Aurreko aldia	
		Merkatu-balioa	%	Merkatu-balioa	%
ALDI BATERAKO ESKURATURIKO AKTIBOAK GUZTIRA				600	2,33
ERRENTA FINKOA GUZTIRA				600	2,33
BARRUKO FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA				600	2,33
Urtebetetik gora kotizatutako zor publikoa guztira		1.244	4,38	1.207	4,68
KOTIZATUTAKO ERRENTA FINKOA GUZTIRA		1.244	4,38	1.207	4,68
ERRENTA FINKOA GUZTIRA		1.244	4,38	1.207	4,68
IKE-AK GUZTIRA		24.604	86,61	23.631	91,77
KANPOKO FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA		25.848	90,99	24.838	96,45
FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA		25.848	90,99	25.438	98,78

Oharrak: Aldia hiruhilekoaren edo seiuhilekoaren amaiera izan daiteke, dagokionaren arabera.

3.2. Finantza-inbertsioen banaketa aldiaren itxieran: Ondare osoaren gaineko ehunekoa



3.3. Deribatuetako eragiketak. Aldiaren amaieran irekitako posizioen laburpena (zenbatekoa mila eurokotan)

azpikoa	Instrumentua	Zenbateko nominal konprometitua	Inbertsioaren helburua
DJ EURO STOXX 50	C/ Opc. PUT EURO STOXX50 3200 JUN 2019	544	Inbertsioa
Errenta aldakorreko azpikoa guztira		544	
Eskubideak guztira		544	
BO. US TREASURY NOTE 280221	V/ Fut. FU. US TNOTE 5 190531	1.023	Inbertsioa
BO. US TREASURY NOTE 150824	C/ Fut. FU. US TNOTE 10 190531	218	Inbertsioa
BO. ESTADO ALEMAN 1,00% 250815	V/ Fut. FU. EURO BUND 190606	1.304	Inbertsioa
Errenta finkoa azpikoa guztira		2.545	
DJ EURO STOXX 50	V/ Opc. CALL EURO STOXX50 3400 SEP19	2.142	Inbertsioa
INDICE S&P 500	V/ Opc. CALL STANDARD & POORS 500 2900 SEP19	1.680	Inbertsioa
Errenta aldakorreko azpikoa guztira		3.822	
OBLIGAZIOAK GUZTIRA		6.367	

4. Gertaera garrantzitsuak

	Bai	Ez
a. Harpidetza/errenboltoak aldi baterako etetea		X
b. Harpidetza/errenboltoak beriz abiatzea		X
c. Ondare-errenbolto esanguratsua		X
d. Ondarearen % 5etik gorako zorpetzea		X
e. Sozietate gestorea ordeztzea		X
f. Erakunde gordailuzaina ordeztzea		X
g. Sozietate-gestorearen kontrola aldatzea		X
h. Informazio-liburuxkaren funtsezko elementuak aldatzea		X
i. Fusio-prozesua baimentzea		X
j. Beste gertaera garrantzitsu batzuk		X

5. Gertaera garrantzitsuak azaltzeko eranskina

Ez aplikagarria.

6. Lotutako eragiketak eta beste informazio batzuk

8. CNMVk agindutako informazio eta ohartarazpenak

Ez aplikagarria.

9. Aldizkako txostena azaltzeko eranskina

2018aren amaieran balio-zuzenketa handiak egin ziren arrisku-merkatuetan, ekonomia garatuetako (batez ere Estatu Batuetako eta Europako) aurrerapen ekonomikoak moteltze larria izango zuelakoan. Alabaina, 2019aren lehen hiruhilekoan susperraldi itzela ikusi dugu merkatuetan, justu kontrako norabidean. Egia da 2019ko BPGda gutxiago haziko dela (Estatu Batuetan, adibidez, iazkoa baino puntu erdi txikiagoa ari da izaten, gutxi gorabehera); baina, aurreikusten dugu urtean aise gaitutako duela % 2ko hazkundea. Eurogunean moteltze handiagoa aurreikusten da, eta urteko hazkundea % 1 baino handixeagoa izatea. Italia da, berriro ere, katebegirik ahulena, urtean ia ezer ez haztea espero baita, eta Espainiako ekonomia izango da, beste behin, aurrerapenik handiena izango duena (% 2tik gorakoa). Bi faktore nagusi ageri dira munduko hazkundearen dezelerazioaren atzean. Batetik, Estatu Batuetako diru-baldintzak gogortu izana, duela hilabete gutxi interbentzio-tasan beste 3 igoera egotea aurreikusten baitzen, % 3,00-% 3,25eraino iritsi arte. Arrisku-faktore hori desagertu egin da, Erreserba Federala apur bat lasaitu eta esan duenean urte-amaierara arte interes-tasei egungo mailan (% 2,25-% 2,50 inguruan) eusteko asmoa duela. Inflazioa kontrolatuta dagoen honetan, horixe da, gure ustean, merkatuei

	Bai	Ez
a. Fondoaren ondareko partaide esanguratsua (% 20tik gorako ehuneko)		X
b. Garrantzi txikiko aldaketak Araudian		X
c. Gestorea eta gordailuzaina talde berekoak dira (Balore Merkatuari buruzko Legearen 4. artikulua arabera)	X	
d. Baloreak erosi edo saltzeko eragiketak egin dira eta gordailuzaina saltzailea edo eroslea izan da, hurrenez hurren	X	
e. Gestorearen edo gordailuzainaren taldeko erakunderen batek jalki edo abalaturako baloreak edo finantza-tresnak erosi dira, edo erakunde hori merkaturatzailea, aseguratzailea, zuzendaria edo aholkularia izan da, edo lotutako		X
f. Baloreak edo finantza-tresnak erosi dira, eta horien kontrapartida gestorearen edo gordailuzainaren taldeko erakunde bat izan da, gestore berak gestionatutako IKE bat edo taldeko beste gestore bat		X
g. Gestorearen taldeko erakundeek sarrerak jaso dituzte eta horien jatorria IKEak ordaindutako komisioak edo gastuak dira		X
h. Lotutako beste informazio edo eragiketa batzuk		X

7. Lotutako operazioen gaineko eranskin esplikatiboa eta ohartarazpenak

Hiruhilekoan zehar berrerosteko hitzarmena duten eragiketak gauzatu dira entitate gordailuzainarekin, 0 milioi eurokoak erosketa-kontzeptuan (batez besteko ondarearen % 0), eta 0,6 milioi eurokoak salmenta-kontzeptuan (ondarearen % 2,18).

laguntzeko aukerarik egokiena. Bestetik, Estatu Batuen, Txinaren eta Europaren arteko muga-zergen gerrak hazkunde ekonomikoa galgutzen du, eta, ziurrenik, 2019an hazkundera hamarren batzuk gutxitzea eragingo du bloke guztietan. Dena dela, Brexitak edo Txinako zor-burbuilak egonkortasun ekonomikoari zekarkioten arriskua bigarren mailara joan da, eta ez dirudi momentuz merkatuen garapenean eraginik duenik. Interes-tasak tenkatzeko prozesuan banku zentralak atzera egin izanak lasaitu egin du hazkundera; baina, aldi berean, zaildu egin du diru-merkatuetan errentagarritasuna lortzea, batez ere Europar. EBZk hazkunde- eta inflazio-aurreikuspenak jaitsi dituen honetan, bankuei egindako likidezia-injekzioek zaildu egin dute epe laburrerako zorretako inbertsioen etorkizuna, interes-tasa altuagoak behar baitituzte zorroetan errentagarritasuna lortzeko. 2019an ez dugu espero horren inguruko aldaketarik. Gobernuen eurotako zor-jaulkipenek portaera bikaina izan dute urteko lehen hiruhilekoan, Alemaniako eta Espainiako interes-tasak errentagarritasun-minimoetara iritsi izanak balorazioa hobetu duelako. Hala, 10 urterako errentagarritasunak oinarritzko 30 puntu inguru lasaitu dira, % 0raino eta % 1,10eraino, hurrenez hurren. Zaila da mugimenduak ildo horretan jarraitzea, interes-tasen maila aintzat hartuta; horiek horrela, hemendik eta urte-amaierara arte portaera txarragoa izango dutela aurreikusten dugu. Italiako zorrak errebalorizazio handiak izan ditu, eta, errentagarritasun-maila altuagoa duenez, 10 urterako bonua % 2,50ean dago, irabazi-marjina handiagoa da, baina baita arriskua ere. Estatu Batuetan, handiak izan dira bonu subiranoen irabaziak. FEDen igoera-aurreikuspen txikiagoen ondorioz, tasak txikitu egin dira ia oinarritzko 30 puntu, hala epe laburretan nola luzeagoenetan. Hemen, errentagarritasunak erakargarriak dira oraindik, % 2,30ekoak 2 urterakoan eta % 2,40koak 10 urterakoan. Halere, hurrengo hiruhilekoan gorakada izan daiteke, batez ere egoera ekonomikoak hobera egiten badu. Gobernu-tasak behar bezala eta zikloari buruzko aurreikuspenak larri ez direnez txartzten ari, inbertsio-graduak zor korporatiboari mesede egin dio egoerak eta aise berreskuratu du joan den urtearen amaierako beherakada. High Yield zorraren eurotako merkatuari ere mesede egin dio diru-baldintzen tenkatze txikiagoak; oso portaera ona izan du, % 5eko errentagarritasunak lortzeraino. Gure ustez, irabaziak ikusteko moduko abagunea izango da datozen hiletan, erritmo motelagoan bada ere. Azkenik, burtsak errebalorizazio handiak bizi izan dituzte: indize britainiarraren % 8,19tik S&P500 indizearen % 13,07ra bitartekoak. Tasen presio txikiagoari eta enpresa-irabaziei eusteko aukerari esker, burtsak gorako bidean jarraitzen dute. Europako burtsaren eraketa dela eta (beste burtsa garatu batzuek baino pisu handiagoa du finantzen sektorean), Europako indizearen irabazi-itxaropenak mugatuak dira, eta, beraz, zailagoa da kotizazioak igotzea. Halere, 2019rako aurreikuspenak onak direla pentsatzen jarraitzen dugu, nahiz eta aurrerapenak erritmo neurritsuagoa eta arrisku-faltarik gabea beharko lukeen. Aipagai dugun aldian, Fondoak 6 partaideko igoera izan du eta % 9,741eko errentagarritasun garbia lortu du. Hala, epealdia itxtean, ondareak 2.657 mila euroko aldakuntza izan du emaitza garbian, eta 28.404 mila eurokoa da. Epealdian fondoak izandako errentagarritasuna handiagoa izan da Espainiako urtebeterako Altxorraren Letrarena baino. Gestorearen batez bestekoa (% 3,152koa) baino errentagarritasun handiagoa eman du fondoak. Batez bestekoarekiko desbiderapena fondoaren inbertsio-bokazio bereziaren ondorio da. Fondoak egindako gastuek % 0,56ko eragina izan dute berorren errentagarritasunean. Fondoak ez du jasan inbertsioen gaineko finantza-analisirako zerbitzuaren ondoriozko kosturik. Gestoreak prozedura zehatza dauka, IKEaren eragiketak burutzeko erabiltzen diren bitartekariak ahalik eta ondoen aukeratzeko. Fondoak onartutako arriskua (aldi horretako eguneroko likidazio-balioaren urteko hegakortasunaren arabera neurtua), % 9,19koa izan da. Epealdi berean, urtebeterako Altxorraren Letren hegakortasuna % 0,21ekoa izan da, eta Ibx35 indizearena % 12,331koa. Fondoak % 4,74ko hileko VaRa izan du azken 5 urteotan. Kontu korrantean eta inbertsio-mailetan doikuntzak eginez inbertitu da. Epealdian ez da aldaketarik egon zorroaren kreditu-kalitatean. Tresna deribatuetan egindako eragiketak une bakoitzean nahi ziren inbertsio-bitarteei eusteko doikuntzen ondoriozkoak izan dira, eta fondoaren inbertsio-politikan ezarritako mugak bete dituzte.

% 0,112ko gastua dagokio inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetako inbertsioengatik. Ekitaldia itxtean, ondarearen % 84,6 dago IKE-etan inbertituta.

Errenta finkoko zorroaren BETa % 2,33koa da.

Fondoaren zorroan akziorik ez dagoenez, ez da aplikatzen Sozietate Gestorearen Administrazio Kontseiluak ezarritako boto-eskubideari buruzko politika.

Esan dezakegu epe laburrean agertoki onuragarria etorriko dela finantza-merkatuetarako, hazkundera utsita, eta banku zentralak espero zena baino politika malguagoa dutela. Dena dela, arriskuak goraka doaz eta merkatuetan hegakortasun-egoerak sor ditzakete. 2019ko hazkunde-aurreikuspenak beherantz berrikusten ari dira oraindik ere, batez ere Europar Batasunean. Estatu Batuek, oster, sendotasun ekonomiko handiagoa erakusten ari dira.